



Itzulpen Jarduera Lan Harremanen Kontseiluan (2025)

Lan Harremanen Kontseiluan ia egunerokoa da itzulpen-lana, baina gehienetan ¹itzuli beharreko testu edo iruzkinak ez dira hain luzeak izaten. Urte honetan zehar egindako itzulpenen bolumena, guztira, 97.565 hitzekoa izan da, eta batez bestekoa eginda, eguneko 310 hitz ateratzen dira.

Aipatutako kopuru horietan sartzen dira, nagusiki, aplikatzeko hitzarmenari buruzko kontsultei emandako erantzunen itzulpenak. Aurten gaztelania hutsez egindako 128 kontsultari erantzun zaie euskaraz eta gaztelaniaz, izan ere, prozedura hau izaten da: azterlanen zerbitzuko teknikariak prestatzen du gaztelaniaz erantzuna, eta ondoren euskaratzen du normalkuntza-teknikariak. Guztira, itzulpen-lanaren erdia baino gehiago horietan doa. Kontsulta bakarra heldu zaigu euskara hutsean, eta euskaraz erantzun zaio.

Azterlanen zerbitzuan prestatzen dira, halaber, egoera soziolaboralari buruzko aldian behingo iruzkinak edo komentarioak, eta prentsa-oharrak. Urte honetan, guztira, 4 iruzkin eta prentsa-ohar bat izan dira.

Bestalde, Lan Harremanen Kontseiluko kideak aldiro Osoko Bilkuran elkartzen dira unean uneko gaiak lantzeko; izan liteke ohiko deialdia, edo ezohikoa. Bada, 2025ean ohiko bilera bi eta ezohiko bilera bat izan dira, eta normalkuntza-teknikariak euskaratu ditu deialdi bilkura horiei dagozkien deialdi eta aktak.

Bestelako lanak ere izan dira, esaterako, administrazio-arlotik etorri direnak, baina normalean dokumentu laburrak izaten dira, arin itzultzekoak.

¹ Aurten desberdina izan da, txosten soziolaboralen kontua dela eta.

Lan potoloagoak ere izaten dira, esaterako txosten soziolaboralak; kasu honetan, hiru hilean behingoa (lehen, sei hilean behingoa) eta urtekoa. Izan ere, 2025 urtean LHKko normalkuntza-teknikariak berak itzuli ditu txostenok. Eta, hain zuzen ere, aurten horrela jokatu delako egin du gora aurtengo itzulpenen bolumenak.

Itzulpenak egiteko orduan itzultzaile neuronalak erabiltzen ditugu, bai Elhuyarrena (Elia), bai Eusko Jaurlaritzarena. Eta 2019ko maiatzaz geroztik Elhuyarren wordfast programa darabilgu; itzulpen-memoria bat da, egin ahala itzulitakoak gordetzen dituen. Tresna horiei guztiei esker, normalkuntza-teknikariaren lana erraza eta arina izaten da.